

HIZKUNTZA-ERABILERA BEHAKETA BIDEZ NEURTZEKO M E T O D O L O G I A

KALE NEURKETARAKO OINARRIZKO AZALPENAK

Aurkibidea

SARRERA.....	2
1. AHOZKO HIZKUNTZA-ERABILERA NEURTZEKO METODOLOGIA:.....	3
IRIZPIDE OROKORRAK	3
2. NEURKETAREN DISEINUA	5
3. DATU-BILKETARAKO FITXA.....	7
4. NEURTZAILEARENTZAT OINARRIZKO IRIZPIDEAK.....	2
5. ERANSKINA: DATU BILKETARAKO FITXA.....	4

SARRERA

Soziolinguistika Klusterra bere sorreratik arduratzen da behaketa bidezko metodologiaren bidez hizkuntza erabileraren neurketak egiteaz. EKB eta SEI elkartearen oinordekotza hartu zuen 2006. urtetik aurrera Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketaren erakunde-arduradun bezala. Horretaz aparte, herrietan kale erabileraren neurketa bereziak eskaintzen ditu udalentsat zerbitzu bezala. ARRUE proiektuan ere ikastetxeetako jolaslekuetan erabilera behaketa bidez neurtzen esperientzia handia pilatu da, azken urteetan. Guzti honetaz gain, kontuan hartu behar da, Soziolinguistika Klusterraren bazkideen artean dauden erakundeetan kalean, lantokietan eta ikastetxeetako jolaslekuetan behaketa bidez hizkuntza erabilera neurtzen dutenak daudela. Esperientzia eta ezagutza guzti hori denon mesedetan kontrastatu eta bateratzera bideratutako lan-ildoak garatzen dihardu Klusterrak azken urteetan.

Dokumentu honetan neurketak egin ahal izateko irizpideak eta oharrak biltzen dira. Honen bidez, metatutako ezagutza hori zabaldu nahi da eta ingurune zehatz bateko erabilera neurtu nahi duenaren eskura jarri nahi dira gutxieneko oinarri metodologikoak.

1. AHOZKO HIZKUNTZA-ERABILERA NEURTZEKO METODOLOGIA: IRIZPIDE OROKORRAK

- ***Ikerketa metodologia behaketa zuzena da***

Neurketaren unean hitzunak erabiltzen duen hizkuntza jasotzen da zuzenean, hitzunari **ez zaio ezer galdetzen**. Honela, inkesta bidez jasotako datuen subjektibotasuna (norberaren ustea) baztertzen da, eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

- ***Aztergaia erabilera informala da***

Hiztunen arteko harreman gertukoena dira hizkuntzaren bizi-indarraren adierazle esanguratsuenak. Harreman gertuko edo informal hauek izan ohi dira, hain zuzen, gure aztergaia. Alegia, kalean senideekin, lagunekin, ezagunekin gertatzen diren elkarrizketen hizkuntza behatzen dugu; lantokietan, eguneroko lankideekin eremu informalean gertatzen diren elkarrizketak; ikastetxeetan, ikaskideekin jolastokietako elkarrizketak; etab.

- ***Behaketa diskrezio osoz egiten da***

Neurketa burutu ahal izateko azterketa guneak ezinbesteko baldintza bat bete behar du, alegia, neurtu behar dugun gunean datuak diskrezio osoz jaso ahal izatea. **Hiztunek ez dakite behatuak direnik**, beraz, hizkuntza erabilerari dagokionean norbanakoen ohiko joera jasotzen da.

- ***Behaketa-unitatea elkarrizketa da***

Norbanakoen mintzajarduna aztergai duten metodologietan **behaketa-unitate oinarrikoa elkarrizketa da**. Elkarrizketetan parte hartzen duten norbanakoen kopurua neurtuko dugu, baina unitate nagusia elkarrizketa da.

Neurraldi bakoitzean elkarrizketa *bera* behin baizik ez da neurtzen. Horrek esan nahi du hizlaria eta entzuleak pertsona berak baldin badira eta erabilitako hizkuntza aldatzen ez bada, behin bakarrik kontatzen dela elkarrizketa hori.

- ***Elkarrizketen iraupena ez da kontuan hartzen***

Elkarrizketa guztien iraupena berdintzat hartzen da. **Motzak ala luzeak diren, ez da aintzat hartzen**. Behatzaileek ez diote erreparatzen elkarrizketen iraupenari.

- ***Elkarrizketak euskaraz ala erdaraz dira***

Behatzaileek elkarrizketen hizkuntza jasotzen dute: euskaraz ala erdaraz. Kasu batzuetan, erdaraz diren elkarrizketetan, gaztelaniaz ala beste hizkuntza batean diren bereizten da. Baina, **elkarrizketa bereko hizkuntza alternantzia nahasia ez da jasotzen.**

- ***Behaketa bakoitzak bere diseinu propioa du***

Behatu beharreko eremuen ezaugarrien arabera diseinatuko da ikerketa. Diseinuan behaketa denbora, guneak, aztertu nahi diren aldagaiak... zehaztuko dira. Erabileraren bilakaera aztertzeko neurketa burutzen den aldiro diseinu bera errepikatuko da. Hurrengo atalean aztertuko dugu neurketa bakoitzaren diseinuan zein ezaugarri zehaztu eta landu behar diren.

2. NEURKETAREN DISEINUA

- ***Ibilbideak***

Kaleetako neurketetan, gune estatikoak baino, ibilbideak zehaztuko dira. Ibilbideak definitzerakoan irizpide nagusia edo helburua herriko biztanle guztiak, potentzialki, neurtu ahal izatea da. Hala, herriko kalerik jendetsuenak neurtuko ditugu: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak...

Eremuaren (udalerraren) tamainaren arabera ibilbide bat edo gehiago izango dugu eta hauetako bakoitza, asteko egun eta ordu berean, behin baino gehiagotan (gutxienez bi neurralditan) neurtzea komeni da. Beharrezko datu-kopurua jasoz gero, emaitzetan ibilbidekako erabilera-datuak alderatzeko aukera izan dezakegu horrela.

- ***Neurtzaileak***

Neurketa eremuan neurtzaileak arituko dira datuak biltzen. Neurtzaile hauek berariazko formazioa jasoko dute.

Kale neurketatan, ibilbide bakoitzeko datuak biltzen bi neurtzaile aritzea komeni da: bata, udalerrria ezagutzen duen neurtzaile-laguntzailea izango da, eta bestea, datu-bilketaren ardura izango duen neurtzaile-aditua.

Neurraldi bakoitzean beti neurtzaile-talde bera aritzea komenigarria da.

- ***Neurketa denbora (neurraldiak)***

Neurketa denbora zehazterakoan bi ezaugarri hartu behar ditugu kontutan: bata, neurketa egunek eremuaren ohiko errealitatea islatzen duten egunak izan behar dute, alegia, eguneroko jardueratik kanpo dauden ekitaldi, ospakizun, edo antzeko gertaera berezietan ez da neurketarik burutuko; eta bigarrena, neurketa orduak potentzialki bertako hiztun guztien mintzajarduna jasotzea ahalbideratu behar dute.

Honela, datu-bilketa egun eta ordu-tarte batzuetan burutuko da, eta egun eta ordu-tarte bakoitzak neurraldi bat osatuko du. Esate baterako, Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketan hiru neurralditan egiten da datu-bilketa: asteazken arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara; larunbat goizean, 11:00etatik 13:00etara; eta, larunbat arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara.

- **Aldagaiak**

Kaleetako erabileraren neurketatan, aldagaien azterketa egin daiteke hiztuna ezagutu gabe, hau da, behaketa nahikoa izango da hiztunaren ezaugarriak (aldagaiak) neurtu ahal izateko. Sexua, adin-tartea edota haurren presentzia bezalako aldagaien berri jasotzeko baliatzen den bitarteko bakarra behaketa da. Ez dago bestelako informazio-ituririk.

Aztergai nagusia hizkuntza erabilera da, alegia, hiztuna euskaraz ala erdaraz (gaztelaniaz, frantsesez ala beste hizkuntza batean) ari den behatuko dugu.

Hizkuntza erabileraren zenbateko orokorraz gain, hizkuntza hautatzeko hainbat aldagaiek duten eragina ere neurtzeko aukera izango dugu. Aldagai hauek hiztunaren ezaugarriei dagokienak dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

Euskal Herriko Kale Neurketan hiru aldagai aztertzen dira: adina, sexua eta haurren presentzia. Bakarkako elkarrizketen hizkuntza ere jasotzen da (mugikorretik hitz egiten ari direnak, atariko interfonotik ari direnak,...).

- **Neurtu beharreko elkarrizketa kopurua (lagina)**

Neurketa orduak laginaren tamaina baldintzatuko dute, izan ere, behaketa denboran jasotzen dugun elkarrizketa kopuruak osatzen du lagina. Zenbat eta ordu gehiago neurtu, orduan eta elkarrizketa gehiago jasoko ditugu, eta datuak are eta fidagarriagoak izango dira.

2011n sortu du Soziolinguistika Klusterrak ahozko hizkuntza-erabileraren neurketetarako lagina kalkulatzeko tresna. <http://www.soziolinguistika.org/lagina> webgunearen bidez, elkarrizketa kopuru bat populazio baten (herria, lantokia, ikastetxeko jolaslekua...) erabilera-datua kalkulatzeko nahikoa den kalkulatu daiteke.

Tresna horren bidez, neurketa egin nahi den eremuaren ezaugarrien arabera, neurtu beharko litzatekeen elkarrizketa kopurua kalkulatu behar da. Honen arabera, gutxieneko elkarrizketa kopurura iristeko asmoz zehaztuko litzateke neurraldien iraupena eta kopurua.

3. DATU-BILKETARAKO FITXA

Datuak fitxa berezietan jasoko dira (Ikus ERANSKINA). Diseinuan zehaztutako neurraldiak iraun bitartean, behar adina fitxa erabiliko dira, behatzen diren elkarrizketa gutzien informazioa jasotzeko. **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean** adieraziko da, eta lau datu hartuko dira kontutan:

1. HIZKUNTZA:

Euskara, Gaztelera/Frantsesa (Ipar EH) eta Besterik (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu “besterik” zutabea adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren hizkuntzekin.

2. ADIN TALDEA:

Haurrak (2-14 urte), Gazteak (15-24), Helduak (25-64) eta Adinekoak (65 urte baino gehiago). Behatutako jendea adin-taldeetan sailkatzea neurtzaileek behatze hutsarekin (gutxi gora-behera) egin beharrekoa da.

3. GENEROA:

bukatzeko mintzakideen sexua jasoko dugu, *Emakumezkoa* ala *Gizonezkoa* den.

4. HAURRAK HITZ EGITEN

ari diren jasoko dugu. Hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren *Bai* ala *Ez*.


Neurketa nola egiten den azaltzeko HIRU ADIBIDE jarriko ditugu:

- a) Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten



1. Euskaraz laukian “X” markatu.
2. Haurren zutabea, emakumezkoen laukian “1” adierazi eta gizonezkoen laukian beste “1” adierazi.
3. “Haurrak hitz egiten” zutabea “bai” laukian “X” markatu.

b) Senar emazteak erdaraz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe:



1. Gazteleraz laukian "X" markatu.
2. Hurren zutabearen emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabearen gizona zuten laukian "1"; eta helduen zutabearen emakumezkoen laukian "1" eta gizona zuten laukian beste "1" markatu.
3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" seinalatu.

c) Hiru heldu, emakume bat eta bi gizon, euskaraz ari dira:



1. Euskaraz laukian "X" markatu.
2. Helduen zutabearen emakumezkoen laukian "1" eta gizona zuten laukian "2" adierazi.
3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" markatu.

Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean normalean bat entzungo dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan guk fitxan lau lagun entzun ditugula jarriko dugu.

DATUEN IRAKURKETA

Neurketa metodologia honen bidez nolako emaitzak lortzen diren adierazteko, 2006an burututako Euskal Herriko V. Kale Neurketara jo dugu, eta bertan jasotako ondorio nagusietatik bi ekarri ditugu hona:

“2006ean Euskal Herriko elkarrizketen %14,2 euskaraz izan dira (...) 1.989az geroztik, hamazazpi urtetan, 3,4 puntu igo da.”

Adinaren araberako datuei erreparatuz gero, (...) zenbat eta gazteago izan orduan eta euskararen erabilera altuagoa dugu. Aurreko neurketatik haurren artean handitu da gehien erabilera (% 20,8), helduek ere puntu batean hobetu dute (% 12,3), eta zaharrek etengabeko jaitsieran jarraitzen dute (% 10,6). Gazteen artean, berriz, ez da hobekuntza nabarmenik gertatu, aurreko neurketetako proportzio antzekoa jaso dugu (% 13,8)

Neurketa batek eman diezagukeen argazki estatikoa baino, garrantzitsuagoa izan ohi da bilakaera interpretatzea. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da neurketaren diseinuari eustea neurketaz neurketa.

Datuen interpretazioari dagokionean, kontuan hartu beharreko bi ideia azpimarratuko ditugu:

- 1.** Hizkuntzaren ahozko erabilera gertaera kolektiboa da, berez. Alegia, hizkuntzaren ahozko erabilera ez da norbanakoari dagokion zerbait, taldeari dagokiona baizik. Ezagutza, ordea, norbanakoari dagokio.
- 2.** Pertsona batek kalean euskara erabiltzeko probabilitatea faktore askoren emaitza da. Zentzu honetan, euskararen ezagutza-maila eta kale erabilera-maila alderatze hutsetik atera ohi diren ondorioak ez dira zuzenak izaten. Kale erabilera ezagutza baino txikiagoa izan ohi da, hori baita normalena.

4. NEURTZAILEARENTZAT OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta kalean soilik dabilen jendearen arteko hizkuntz erabilera. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegiak, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratzen dira.

Nola jaso behar dira datuak fitxan?

Datuak fitxa berezietan jasoko dira. Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da, eta lau datu hartuko dira kontutan:

1. HIZKUNTZA:

“euskara”, “gaztelera/frantsesa (Ipar EH)” eta “besterik” (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu “besterik” zutabearen adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.

2. ADIN TALDEA:

“Haurrak (14 urte bitartekoak)”, “gazteak (15-24 urte)”, “helduak (25-64 urte)” eta adinekoak “(65 urtetik gorakoak)”. Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.

3. GENEROA:

bukatzeko mintzakideen sexua jasoko dugu, “emakumezkoa” ala “gizonezkoa” den.

4. HAURRAK HITZ EGITEN

Haurrek hitz egiten duten jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren “bai” ala “ez”.

Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean normalean bat entzungo dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan guk fitxan lau lagun entzun ditugula jarriko dugu.

Beste ohar batzuk:

- Ibilbidean zehar pertsona bera -neurraldi eta elkarrizketa berean- ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berdinarekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak berdinak izan arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- Neurtzaileekin hitz egiten dutenak ez dira neurtuak izango.
- Dudazko kasuak ez jaso, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer : ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari ; gurea neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.
- Taberna, denda eta bestelako leku itxien barnealdeetan neurtzerik ez dagoen arren, haien sarrera-irteeretan bai. Hori oso kontutan hartzekoa izan daiteke euria eginez gero batez ere.

Azken oharra:

- Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, beti egia jarri. Euskaltzaleon joera izaten da errealitateak adierazten duena baino euskara gehiago aditu nahi izatea. Alferrik gabiltza ordea, geure buruak engainatzen: azterketa hau euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan.

5. ERANSKINA: DATU BILKETARAKO FITXA

AURREALDEA:

**HIZKUNTZA
ERABILERAREN
KALE NEURKETA**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
klusterra@soziolinguistika.org

HERRIA: _____

IBILBIDEA: _____

EGUNA: _____ ORDUA: _____

NEURTZAILEAK: _____

	EUSKARA	GAZ TELERA FRANTSESA (lpar EH)	BESTERIK	Haurrak (2-14 urte)		Gazteak (15-24 urte)		Helduak (24-64 urte)		Adinekoak (65-... urte)		Haurrak hitz egiten	
				BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa

ATZEALDEA:

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA FRANTSESA (ipar EH)	BESTERIK					Haurrak hitz egiten	
				Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (24-64 urte)	Adinekoak (65-... urte)	BAI	EZ
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						

Emakumezkoa Gizonezkoa